



GURE ONDARIA ZAINDDU GURAN

Oñatik bazter zabalak dakola danok dakigu; eta bazter horreittan ur asko daguela be bai. Ur eta erreka pillia egotiak zubixen ugarittasuna dakar berekin, edozein auzotara edo basotara faten bagara, berihelaxe ikusi geinkien moduan. Beste sail batzuetan letxe, zubi kontuan be herri gutxi izango dau Oñatik lako aberastasunik.

Zubi danak ezтира, jakiña, ez itxura, ez egitura, ezta sasoi berekuak be. Batzuk, nahiz eta konponketa morduekin izan, Erdi Arotik gaur arte iraun daue zutik; beste batzuk, berriz, bota egin zittuain eta harein lekuan orain barrixak dittugu; badira, azkenik, gure XX. mende honetan jasotakuak. Erreka haundi samarretan puntu erdiko arku apañak dakoi batzuk (**Lamiategi**), arku gotiko dotoriak hurengiak (**Torreauzo**), arku bat baiño gehixago iñoiz (**Elorregi**); erreka txikiñagotan, ostera, era guztietakoko dozenaka zubitxo lirain (**Matromai**, **Zubilior**, **Urtxipi**, **Kortabarri**, **Aldabe** eta beste hainbat) geldiketan da Oñatiko udalerri barruan. Harlanduz egindakuak ezтира gutxi, harri baldarraguz beste batzuk, zurezko edo burdinazko banaka batzuk be badagoz, eta azken orduko zubixe-



"1983ko Urdundixak eruan ebein Bellotzako Zubixa"

ZUBIXAK (II)

tan porlana da nagusi.

Fan dan hillian kaleko zubi historikuairi emun gosten errepasua, eta orain auzuetakuak aittaketia gura geinke. Dana dala, orrialde bakar batian nekez sartu leike hasi San Prudentzion eta Arantzazu eta Olabarrietaraiño zubi guztiak. Esate baterako, azken auzo honetan, haundi eta txikin, 32 zubi gaketan dirala jakin dogu. Aspaldikua da, gaiñera, ugarittasun hori; izan be 1590. urtera orduko 22 zubi arkodun eta beste txikin asko egozen Oñatin, eta horreittatik gehixen ezagutu dittugu XX. mendian.

Zubi guztion inbentarixo zihatza egunen batian egin biharko dogu, aguro hondaketako arriskuan dagozenena batez be. Bixen bittartian kontuan euki daigun egunero ikusten dittugun zubixak sarritan Oñatiko historixan izugarritzko inportantzia eukittakuak dirala: **Elorregikua** (San Prudentzio errota ondokua), adibidez, 1504an jaso zan, hau da, orain dala, ixa 500 urte; **Zubillagako** bixak (Errotakua eta Txipitxallekua) behin eta berriro aittaketan dira dokumentu zaharretan; **Garibai-Torrekua** (San Pedron) hamaika ipuiñetan

agerketan xaku; eta **Lamiategi**, **Urruxula**, **Jaturabe**, **Aldaola**, **Olapoto**, **Irubieta**, **Artxubi**, **Ugarte...**, ezagunenak eta haundixuenak gogoraketiarren. Trenbi-diaren bostak ahaztu barik.

Baiña zubi polit eta eder askuak betiko galtzen ikustia be tokau xaku: uraundixakin ondatu ondoren, antxiñako egitturia eta materialak baztertuz, zihero barrixak jaso diralako (**Urruxolako errota-kua**, **Bellotzakua**), edota inguruan besteren bat eraiki dalako (**Zuazola**). Egindako kaltiak ezta-ko bueltarik batzutan; hala ta guztiz be, badira, ixa jausixan egon arren, txukunketia mereziko leuki-zen zubixak: Arrikruzetik **Madiña** alderako galtzadako zubi zaharra, Zubilior baiño lehentxuago dagueña, esate baterako. Udaletik eta beste erakundietatik laguntasunik balego, auzotarrak konponketa-lanetan parte hartzeko prest egongo lirakela pentsaiten dogu. Ia urtero gure ondariaren halako testigu bat, gutxienez, konponketa-ko plana egin eta hartarako konpromisua hartzeko gauza garien!

JERARDO ELORTZA

Lantxo bau moldau abal izateko, informaziñua eskuratu dostain Joxe Anjel Idigoras, Joxe Antonio Azpiazu eta Jexux Etxezarretari milla esker,

TALLERES OLA

BERGARA
Tfnoa: 943- 76 33 44 - 46

ARRASATE
Tfnoa: 943 - 79 05 86

CONCESIONARIO OFICIAL

ZUMADIA

AINTZINATEKOAK
kutzak • mahaiak •
k o m o d a k
armairuak • erlojuak ...
errestaurazioak

Maiatzaren 1a Enparantza
Tfnoa. 71 60 75 - OÑATI

ITATEA
Egaña

ak
endua
eta

mpoketa
SS-949

B
OÑATI

93ko Ofsaila

5. zkia, 1993ko Ofsaila

KONTZEJUPETIK